DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

ELANKIDETZA

- Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak 2
- Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko estrategien modalitatea 4
- Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko prozesuak sustatzeko lankidetzarako erakundeentzako laguntzak 6
- Garapenerako lankidetza-programetarako laguntzak – Exekuzio-fasea 8
- Garapenerako lankidetza-programetarako laguntzak – Identifikazio-fasea 10
- Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko proiektuen modalitatean 12
- Garapenerako lankidetza-proiektuetarako laguntzak 14

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak

2.- Araua

62/2017 DEKRETUA, martxoaren 21ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira Garapenerako Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak

EBAZPENA, 2025eko irailaren 1ekoa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baitira garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko lau beka, 2025erako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dekretua:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/03/1701533e.pdf
Deialdiaren ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/09/2503773e.pdf
Dirulaguntza emateko ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/12/2505536e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programaren helburua da Garapenerako Lankidetzaren arloan profesionalen espezializazioa eta prestakuntza bultzatzea, eLankidetzaren bulegoetan garatuko diren prestakuntza-beken bidez.
2025ean deitutako 4 beken esparruak hauek dira:
a) Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, erakundeak eta komunitateak babestea
b) Ekintza humanitarioa
c) Gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta komunikazioa
d) Garapenerako lankidetzan aritzea Afrikan

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

54 eskabide zuzen aurkeztu ziren deialdira, eta horietatik 34k ez zuten egiaztatu eskatutako baldintzak betetzen zituztela. Gainerako 20 eskaeretatik, 9k ez zuten lortu eskatutako gutxieneko puntuazioa, eta, beraz, 11 hautagaik jaso ahal zuten beka.
Dirulaguntzen programari esker, gazteak garapenerako lankidetzaren sektorean trebatu eta espezializatu daitezke, eta horrek, aldi berean, ahalbidetzen du neurri handi batean sektore horretako erakundeetan laboralki txertatzea . Beraz, garrantzitsua da, bai gazteak laneratzen laguntzeko, bai GGKEak indartzeko.

Izan ere, GGKE horiek indartu egiten dira sektorean espezializatutako langileekin eta langile horiek dituzten eLankidetzaren funtzionamenduari eta lehentasunei buruzko ezagutzarekin. Berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak: - Balorazio-batzordea 2 emakumek eta gizon batek osatu zuten. - Esleipendun izan ziren 4 pertsonak emakumeak izan ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Eskatutako espezializazio- eta prestakuntza-beken kopurua	35	54
Espezializazio- eta prestakuntza-beken onuradunak	4	4
Espezialitate-kopurua	4	4

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko estrategien modalitatea

2.- Araua

90/2019 DEKRETUA, ekainaren 18koa, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituena.
EBAZPENA, 2025eko otsailaren 18koa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez deitzen baitira ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak 2025 ekitaldirako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dekretua:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903129e.pdf
Deialdiaren ebazpena:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2025/03/2501220e.pdf
Dirulaguntza emateko ebazpena:
https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/07/2503147e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: gatazka-testuinguruetan eta beste indarkeria-egoera batzuetan krisi humanitarioak pairatzen dituzten pertsonen bizitza salbatzeko, sufrimendua arintzeko eta giza duintasuna eta eskubideak babesteko ekintza humanitarioko esku-hartzeak finantzatzea, eremu humanitarioan erabiltzen diren nazioarteko estandarren bidez identifikatuta.

Ekintza humanitarioko proiektuen modalitatearekin alderatuta, ekintza humanitarioko estrategien modalitatean epe ertaineko eta aurrekontu handiagoko esku-hartzeak sartzen dira, eta, krisi humanitarioek eragindako pertsonak babesteko ekintzez gain, erakunde humanitarioak indartzeko eta euskal herritarrak sentsibilizatzeko beste ekintza batzuk ere sartzen dira, eremu horretan espezializazio-maila handiagoa duten erakundeek dinamizatzen dituztenak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiaren zuzkidura 4.000.000 eurokoa izan zen. Kopuru horrek 5 estrategiaren onarpena ahalbidetuko zuen, 800.000 euroko gehieneko zuzkidurarekin. Emaitza hasieran aurreikusitako 5 estrategiak onartzea izan zen, guztira 3.999.998,90 €-ko zenbatekoarekin. Horrek %100eko aurrekontu-betearazpena ekarri zuen, eta soberakin txiki bat esleitu gabe geratu zen, estrategia gehigarri bat finantzatzeko nahikoa ez zena.
Era berean, deialdiak konprometitu zuen Afrikan gauzatu beharreko gutxienez 2 estrategiaren dirulaguntza, haien puntuazioa edozein izanda ere eta baldintzak betetzen bazituzten. Konpromiso hori lortu zen.
Diruz lagundutako ekintza humanitarioko 5 estrategiak honako hauek dira:
- 2 ekimen Afrikan: ekimen 1 Etiopian (Tigray eta Amhara eskualdetan lekualdatutako, itzulitako eta harrerako biztanleekin) eta ekimen 1 Malin (Bamakon, barne lekualdatutako eta harrerako biztanleekin). Azken hori ahaztutako krisia da, Europar Batasunaren 2024ko zerrendaren arabera.
- 2 ekimen Mendebaldeko Asian: ekimen 1 Sirian (Palestinako errefuxiatuekin Sirian) eta ekimen 1 Palestinan (Israelgo okupazioak kaltutako biztanleekin Nablusen).
- Ekimen 1 Latinoamerikan, Kolonbian, Panaman eta Costa Rican garatzen dena (nahitaezko mugikortasun-egoeran dauden pertsonekin, migrazio pendularra, lekualdatuta, itzulita eta harrerako egoeran dauden biztanleekin).
Era berean, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko honako neurri hauek hartu ziren:
- Genero-ikuspegia "esku-hartzean zeharkako ikuspegiak txertatzea" irizpidearen barruan balorazio-elementu gisa sartzea.
- Genero-politika erakunde mailan txertatzea balorazio-elementu gisa hartzea kontuan "erakunde onuraduna" eta "tokiko bazkidea" irizpideen barruan.
- Gehienbat emakumez osatutako hautaketa-batzordea.
Halaber, iraunkortasun ekologikoa izan zen aurkeztutako eskaerak baloratzeko kontuan hartu zen zeharkako ikuspegietako bat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Eskatutako ekintza humanitarioen estrategietako laguntza kopurua	12	8
Emandako ekintza-humanitarioen estrategietako laguntza kopurua	5	5
Emandako proiektuak kokatuta dauden herrialdeak	4	5
Emandako ekintza humanitarioko esparru-estrategietatik, Afrikan gauzatzen den estrategia kopurua	2	2
Modalitate honetako laguntzen onuradunak	100.000	110.000
Emandako proiektuak inplementatzen dituzten tokiko bazkideak	5	10

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko prozesuak sustatzeko lankidetzarako erakundeentzako laguntzak

2.- Araua

40/2018 DEKRETUA, martxoaren 27koa, zeinaren bidez arautzen baitira genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketako prozesuak bultzatzeko lankidetza-erakundeei eman beharreko laguntzak.

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 15ekoa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, lankidetza-erakundeei laguntzak emateko deialdia egiten duena, 2025eko ekitaldirako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dekretua:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2018001818
Deialdiaren ebazpena:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2025/06/2502507e.pdf
Dirulaguntza emateko ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/10/2504630e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntza-programaren helburua garapenerako lankidetzako euskal erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak finantzatzea da. Laguntza horiek generoaren partaidetza-diagnostikoak, genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoak eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoen inplementazioa eta ebaluazioa finantzatzeko ematen dira.

Genero-berdintasunaren aldeko antolaketa-aldaketaren prozesuak erakundeetan gogoeta eginez eta ekintzak martxan jarriz gauzatzen dira. Ekintza horiek ekarriko dute gaur egun dauden egiteko eta pentsatzeko moduak aldatzea, erakundearen funtzionamendu-eremu guztietan (estrategiak, egiturak, lan-sistemak, politikak, antolaketa-kultura eta abar) gertatzen diren genero-desberdintasunak desagerrarazteko.

Dirulaguntzen programak 4 fase finantzagarri ditu:

a) Generoaren partaidetza-diagnostikoa egitea eta genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea.

b) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa prestatzea.

c) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoa ezartzea eta ondoren plana ebaluatzea.

d) Genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan estrategikoaren ezarpena ebaluatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdira 12 eskabide aurkeztu ziren, eta horietako 11 dirulaguntzaren onuradun izan ziren. Diruz lagundutako eskabideak honako fase finantzagarritan banatu ziren:

- a) fasea: diruz lagundutako 5 eskaera
- b) fasea: diruz lagundutako eskaera 1
- c) fasea: diruz lagundutako 5 eskaera
- d) fasea: ez dago diruz lagundutako eskaerarik

Aurrekontuaren betearazpena %98koa izan zen, eta 7.000 euroko soberakina geratu zen, 2025eko ekitaldiaren kontura, beste eskaera bat onartzeko nahikoa ez zena. Hortaz, ekintza humanitarioko proiektuen dirulaguntza-programara eraman zen.

Dirulaguntzen programa, bere osotasunean, berdintasuna sustatzera eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzera bideratuta dago. Horrez gain, hautaketa-batzordea gehienbat emakumeek osatu zuten.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko eskatutako laguntza kopurua	11	12
Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzeko emandako laguntza kopurua	10	11

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garapenerako lankidetza-prometarako laguntzak – Exekuzio-fasea

2.- Araua

180/2023 DEKRETUA, azaroaren 28koa, garapenerako lankidetzako prometarako laguntzak arautzen dituena.
EBAZPENA, 2025eko martxoaren 18koa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita garapenerako lankidetza-programen exekuzio faserako laguntzak emateko deialdia, 2025. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dekretua:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400143e.pdf
Deialdiaren ebazpena:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2025/03/2501371e.pdf
Dirulaguntza emateko ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/07/2503015e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Garapenerako lankidetza-programak Iparraldean eta Hegoaldean ekintzak modu koherente eta osagarrian integratzen dituzten ekimenak dira, eta tokiko ikuspegi global batetik giza garapen iraunkorrerantz aurrera egitea dute helburu. Garapenerako lankidetza-programek bi finantzaketa-fase dituzte, bereiziak eta elkarren segidakoak: identifikazio-fasea eta exekuzio-fasea. Bakoitzari dagokion deialdi publikoaren bidez emango zaio dirulaguntza, eta, egikaritze-fasean parte hartzeko, beharrezkoa izango da identifikazio-fasea aldez aurretik diruz lagundu izana. Dirulaguntza-programa hau 2024an diruz lagundutako identifikazio-faseko programen exekuzio-faseari dagokio.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Dekretu berriak babestutako programen exekuzio-faserako lehen deialdia izan da hau. Horretara aurreikusitako 5 eskabideak aurkeztu ziren, 2024an diruz lagundutako 5 identifikazioei zegozkienak, eta horietako batek ere ez zuen baztertzeko arrazoirik izan. Aurkeztutako 5 eskaeretatik, 4 diruz lagundu ziren, kokapen geografiko honekin: 1 Afrikan, 1 Hego Amerikan, 1 Erdialdeko Amerikan eta 1 Latinoamerikan. Horri dagokionez, deialdiak dirulaguntza bat emateko konpromisoa hartu zuen, garatzen zen Hegoaldeko

herrialde nagusia Afrikari zegokion programarako, haren puntuazioa edozein izanik ere, eta baldintzak betetzen bazituen. Konpromiso hori betetzea lortu zen.

Aurrekontua ia % 100ean gauzatu zen, 5,06 euroko soberakina baino ez baitzen esleitu gabe geratu, eta soberakin hori ekintza humanitarioko proiektuen deialdira bideratu zen.

Berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak

- Erakunde eskatzaileentzat genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan bat indarrean izateko baldintza.
- Exekuzioan parte-hartze handiena duten elkarteko erakundeentzat genero-politika instituzionala indarrean izateko baldintza.
- Balorazio-irizpide espezifikoa, aurkeztutako proposamenean genero-ikuspegia zenbateraino txertatu den neurtzeko.
- Batez ere emakumez osatutako balorazio-batzordea.

Halaber, iraunkortasun ekologikoa izan zen aurkeztutako eskaerak baloratzeko kontuan hartu zen zeharkako ikuspegietako bat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Eskatutako programak identifikatzeko faserako laguntza kopurua	5	5
Emandako programak identifikatzeko faserako laguntza kopurua	4	4
Emandako identifikatzeko faseak kokatzen diren herrialdeak	8	10
Emandako identifikatzeko faseetatik, Afrikara bideratutako funtsak	1.000.000,00 €	999.999,99 €

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garapenerako lankidetza-programetarako laguntzak – Identifikazio-fasea

2.- Araua

180/2023 DEKRETUA, azaroaren 28koa, garapenerako lankidetzako programetarako laguntzak arautzen dituena. EBAZPENA, 2025eko martxoaren 18koa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez iragartzen baita garapenerako lankidetza-programen identifikazio-faserako laguntzak emateko deialdia, 2025. Urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dekretua: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2024/01/2400143e.pdf Deialdiaren ebazpena: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2025/04/2501506e.pdf Dirulaguntza emateko ebazpena: https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/09/2503710e.pdf https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/09/2503913e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Garapenerako lankidetza-programak Iparraldean eta Hegoaldean ekintzak modu koherente eta osagarrian integratzen dituzten ekimenak dira, eta tokiko ikuspegi global batetik giza garapen iraunkorrerantz aurrera egitea dute helburu. Garapenerako lankidetza-programek bi finantzaketa-fase dituzte, bereiziak eta elkarren segidakoak: identifikazio-fasea eta gauzatze-fasea. Bakoitzari dagokion deialdi publikoaren bidez emango zaio dirulaguntza, eta, egikaritze-fasean parte hartzeko, beharrezkoa izango da identifikazio-fasea aldez aurretik diruz lagundu izana. Dirulaguntza-programa hau programen identifikazio-faseari dagokio

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Dekretu berriak babestutako programen identifikazio-faserako bigarren deialdia da hau. 6 eskabide aurkeztu ziren, horietako bat bikoiztua eta beste bat laguntzen esleipendun izateko baldintzak betetzen ez zituena. Aztertu ziren 4 eskaeretatik, 3 diruz lagundu ziren, eta gainerakoa baztertu egin zen, ez zelako 50 puntuko gutxieneko puntuaziora iritsi, Dekretuan adierazitako tresnaren identifikazio-elementuekin nahikoa ez zelako lerrokatu. Diruz lagundutako eskaeretako bik Latinoamerikako jarduera-eremua dute, eta gainerakoak, Erdialdeko Amerikakoa. Deialdiak gutxienez identifikazio bateko dirulaguntza emateko

konpromisoa hartu zuen programa garatzen zen Hegoaldeko herrialde nagusia Afrikari zegokion programetarako, herrialde horren puntuazioa edozein izanda ere eta baldintzak betetzen bazituen.. Konpromiso hori ez zen lortu, ez baitzen eremu geografiko horretarako eskaerarik aurkeztu.

Aurrekontuaren gauzapena % 59,98koa izan zen, eta 60.031,25eko soberakina esleitu gabe geratu zen; soberakin hori ekintza humanitarioko proiektuen deialdira bideratu zen.

Berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko neurriak

- Erakunde eskatzaileentzat genero-berdintasunaren aldeko ekintza-plan bat indarrean izateko baldintza.
- Exekuzioan parte-hartze handiena duten elkarteko erakundeentzat genero-politika instituzionala indarrean izateko baldintza.
- Balorazio-irizpide espezifikoa, "proposatutako identifikazio-prozesua" atalaren esparruan, emakumeek identifikazio-prozesuan parte-hartze aktiboa izango dutela bermatzera bideratuko diren ekintzak baloratzera zuzenduta.
- Batez ere emakumez osatutako balorazio-batzordea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Eskatutako programak identifikatzeko faserako laguntza kopurua	15	5
Emandako programak identifikatzeko faserako laguntza kopurua	5	3
Emandako identifikatzeko faseak kokatzen diren herrialdeak	10	6
Emandako identifikatzeko faseetatik, Afrikara bideratutako funtsak	30.000,00 €	0,00 €

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko proiektuen modalitatean

2.- Araua

- 90/2019 DEKRETUA, ekainaren 18koa, ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak arautzen dituena.
- EBAZPENA, 2025eko otsailaren 18koa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez deitzen baitira ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak 2025 ekitaldirako.
- EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 14koa, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziako zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baitira 2025eko otsailaren 18ko Ebazpena eta horren oinarriak, deialdia egiten duena ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak emateko, eta onartzen baita ekintza humanitarioko proiektuen modalitaterako zuzkidura ekonomikoa handitzea.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dekretua:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/06/1903129e.pdf
Deialdiaren ebazpena:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2025/03/2501220e.pdf
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2025/05/2502324e.pdf
Dirulaguntza emateko ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2026/02/2600654e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gatazka-testuinguruetan eta beste indarkeria-egoera batzuetan krisi humanitarioak pairatzen dituzten pertsonen bizitza salbatzeko, sufrimendua arintzeko eta giza duintasuna eta eskubideak babesteko ekintza humanitarioko esku-hartzeak finantzatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiaren hasierako zuzkidura 3.600.000 eurokoa izan zen. Hala ere, 2025eko martxoaren 13an Gobernu Kontseiluak onartu zuen lankidetzako dirulaguntzak emateko funtsen gehikuntza, eta horrek deialdiaren hasierako zuzkidura milioi 1 euro gehiago handitzea ahalbidetu zuen; era berean, Afrikan gauzatu beharreko proiektuetarako ezarritako erreserbaren gehikuntza eragin zuen, eta 2.300.000 eurotan ezarrita

geratu zen. Era berean, deialdira bideratu ziren honako deialdi hauetan esleitu gabe geratu ziren funtsak: ekintza humanitarioko estrategiak, garapenerako lankidetza-programak (identifikazio-fasea) eta genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak, bai eta dirulaguntza zuzenen kontzeptuan zeuden gerakinak ere. Horien ondorioz, deialdiaren azken zuzkidura 4.745.972,11 eurokoa izan zen. Horri esker, 24 proiektu onartu ziren eta esleitutako aurrekontuaren % 100 gauzatu zen.

Diruz lagundutako 24 proiektuak herrialde hauetan daude:

- 13 proiektu Afrikan: bina ekimen Kongoko Errepublika Demokratikoan, Ugandan, SEADen eta Nigerren, eta ekimen bana Etiopian, Kamerunen, Mozambiken, Burkina Fason eta Nigerian.
- 5 proiektu Ekialde Hurbilean: 2 ekimen Libanon (errefuxiatu palestinarrekin eta siriarrekin eta harrerako biztanleekin), 2 ekimen Palestinan, ekimen 1 Sirian (errefuxiatu palestinarrekin Sirian).
- 6 proiektu Latinoamerikan: 3 ekimen Kolonbian eta ekimen bana Mexikon, Guatemalan eta Costa Rican.

Era berean, berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko honako neurri hauek ezarri ziren:

- Genero-ikuspegia "esku-hartzean zeharkako ikuspegiak txertatzea" irizpidearen barruan balorazio-elementu gisa sartzea.
- Genero-politika erakunde mailan sartzea balorazio-elementu gisa "erakunde onuraduna" eta "tokiko bazkidea" irizpideen barruan.
- Gehienbat emakumez osatutako hautaketa-batzordea.

Halaber, iraunkortasun ekologikoa izan zen aurkeztutako eskaerak baloratzeko kontuan hartu zen zeharkako ikuspegietako bat.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Eskatutako ekintza humanitarioen proiektuetako laguntza kopurua	36	39
Emandako ekintza-humanitarioen proiektuetako laguntza kopurua	23	24
Emandako proiektuak kokatuta dauden herrialdeak	13	16
Emandako ekintza humanitarioko proiektuetatik, Afrikara bideratutako funtsak	2.300.000,00 €	2.599.961,54 €
Modalitate honetako laguntzen onuradunak	130.000	120.000
Baimendutako gehieneko eskabide kopurua esleitu zaien erakunde eskatzaileak	8	8
Emandako proiektuak inplementatzen dituzten tokiko bazkideak	24	33

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Garapenerako lankidetza-proiektuetarako laguntzak

2.- Araua

34/2007 DEKRETUA, otsailaren 27koa, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituena.
390/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako proiektuetarako laguntzak arautzen dituena.
EBAZPENA, 2025eko ekainaren 11koa, Kanpo Harremanetarako eta Euskadi Globaleko idazkari nagusiarena, Garapenerako Lankidetza Proiektuetarako 2025erako Laguntzen Deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Dekretua:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2007/03/0701588e.shtml
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2013/07/1303436e.pdf
Deialdiaren ebazpena:
https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2025/06/2502646e.pdf
Dirulaguntza emateko ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/11/2504752e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Garapenerako lankidetza-proiektuak diruz laguntzea, hiru modalitatetan:
a) Garapenerako lankidetza-proiektuak
b) Produkzio-garapeneko, prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuak
c) Garapenerako hezkuntza-proiektuak

a) eta b) modalitateen helburua da pobreziaren aurka borrokatzea, Hegoaldeko pobretutako herrialdeen prozesu endogenoak eta gaitasunak indartuz. Aldiz, c) modalitatea bideratuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko pertsonak prestatzera, munduan dauden desberdintasunak eragiten dituzten egiturazko arrazoiak ulertzeko eta gizarte-ereduak eraldatzeko konpromisoa eta inplikazioa sustatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Jasotako 176 eskaeretatik, proiektu hauek diruz lagundu ziren: 60 proiektu a) modalitatean (16 Afrikan, 1 Asian, 20 Erdialdeko Amerikan, Mexikon eta Kariben – aurrerantzean CAMEXCA – eta 23 Hego Amerikan); 4 proiektu b) modalitatean (2 Hego Amerikan eta 2 CAMEXCAn); eta 22 proiektu c) modalitatean, guztiak Euskadin (9 hezkuntza formalean, 8 hezkuntza ez-formalean eta 5 hezkuntza informalean).

a) eta b) modalitateetan, aurrekontuaren gauzapena % 100ekoa izan zen. c) modalitatean, aurrekontuaren gauzapena % 99,61koa izan zen, eta 26.019,95 euroko soberakina esleitu gabe geratu zen, proiektu gehigarri bat finantzatzeko nahikoa ez zelako.

Modalitate guztiek jasangarritasun ekologikoa eta genero-ikuspegia barne hartu zituzten esku-hartzeak baloratzeko irizpideen barruan baloratu beharreko zeharkako ikuspegi gisa. Erakunde eskatzaileetan eta haien tokiko aliatuetan genero-ikuspegia maila instituzionalean txertatzea ere baloratu zen. Osagarri gisa, eskaerak baztertzeko irizpide gisa ezarri zen genero-ikuspegia ez txertatzea. Eskaerak baloratzeko batzordearen erdia baino gehiago emakumeek osatu zuten, eta bertan parte hartu zuen eLankidetzako genero- eta garapena-teknikariak. Azkenik, kolektibo ikusezin eta/edo minorizatuek esku-hartzeetan parte hartzea ere kontuan hartu zen eskaeren balorazioan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Eskatutako garapenerako lankidetza-proiektuetako laguntza kopurua (PRO-K1)	107	127
Emandako garapenerako lankidetza-proiektuetako laguntza kopurua (PRO-K1)	60	60
Eskatutako garapen produktiboko proiektuetako laguntza kopurua (PRO-K2)	7	5
Emandako garapen produktiboko proiektuetako laguntza kopurua (PRO-K2)	4	4
PRO-K1 eta PRO-K2n emandako proiektuak kokatuta dauden herrialdeak	23	25
Emandako garapeneko eta garapen produktiboko proiektuetatik Saharaz hegoaldeko Afrikara bideratutako funtsak	8.000.000,00	8.000.000,00
Eskatutako Garapenerako hezkuntzako laguntza kopurua(PRO-K3)	37	44
Emandako Garapenerako hezkuntzako laguntza kopurua(PRO-K3)	25	22
Onartutako proiektuen artean, "Emakumeen ahalduntzea" sektorean kokatutako proiektu kopurua	18	14
Onartutako proiektuen artean, "Defendatzaileak babesteko" sektorean kokatutako proiektu kopurua	13	15
Deialdi osoan gutxienez laguntza bat jaso duten erakunde eskatzaileak.	51	44
Baimendutako gehieneko eskabide kopurua esleitu zaien erakunde eskatzaileak	1	1